

Hitzaurrea



erezadek gauero kontaktzen omen zuen ipuin berri bat bizirik irauteko, eta guk, hura bezala bizirik gaudelako, «istorio» ezberdin bat kontatu nahi dugu *Behinola* honetan: euskal ilustrazioarena.

Hitz eta Pitz atalerako galdetegi bat pasatu zaie orain arte *Behinola*-n parte hartu duten ilustratzaileei. Hainbat arrazoi tarteko, guztiek ezin izan dute erantzun. Denak bildu eta aztertu ondoren, euskal ilustrazioaren egoera, sentimenduak eta ideia nagusiak biltzen saiatu gara, kanpoan gelditu direnekiko errespetu osoz. Galdetegian parte hartu duten ilustratzaileak hauek izan dira, alfabetikoki sailkatuta: AITZIBER ALONSO, IBAN BARRENETXEA, ANTON DUESO, ÁNGEL DOMÍNGUEZ, EIDER EIBAR, BELÉN LUCAS, JESÚS LUCAS, DANI MAIZ, IÑAKI MARTIARENA «MATTIN», LORENA MARTÍNEZ, JOKIN MITXELENA, ELENA ODRIUZOLA, IRAIA OKINA, MANU ORTEGA, PEDRO OSÉS, JOSE ANTONIO TELLAETXE, MIKEL VALVERDE ETA JON ZABALETA.

Hitzontzi-n, Marguerite Yourcenaren *Wang-Fo nola izan zen salbatua* moldatu du maisuki PATXI ZUBIZARRETA. Indarrez kargaturiko ipuin horrekin plazer ziurra izango du irakurleak.

Hizpide-n, DANI MAIZen *Euskal ilustrazioaren panorama HGL-n* artikulua dugu. Bertan, errepasso sakona egiten zaio euskal ilustraziogintzari; 1900. urtean kubismo, futurismo eta prentsako tira komikoez zuten eraginarekin hasi, eta gaur egungo album eta liburu ilustratuek duten garrantzia nabarmenduz bukatzen da.

Bestalde, JONE ARROITAJAUREGIk *Munia eta Iholdiren benetako historia (edo zergatik diren adiskide Balzola eta Landa)* artikulua ekarri digu. Bertan, bi artista horien konplizitatea eta lana aztertuko ditu Jonek; *Munia* eta *Iholdi*-ren sailetan oinarrituko da azterketa egiteko.

Ondoren, *Hitzordu*-n Galtzagorrik antolatutako Marraz(i) oak III-ren berri izango dugu. Berrituta heldu zen Marraz(i) oak egitasmoa, izan ere, paperetik euskarri digitalera pasatu baitzen gazteentzako mikroipuin animatuak sortzea helburutzat zuen iazko proposamenak. Horren ondorioz, *NAUFRAGOTILUS NAUTILUSFRAGO* ekoizpena burutu zuten.

Jarraian, *Hitz beste* atalean hainbat aipamen edo berri labur irakurtzeko parada izango du irakurleak. Askotarikoak izango dira bertan jasotakoak, ohikoa den legez.

Hitzatzea-n MIKEL AYERBEk hitzik gabe, ilustrazioekin soilik eraikitako album ilustratuak aztertuko ditu. Horretarako, TERESA DURANEK erabili ohi zuen izena erabiliko du Mikelek: album mutua, eta haien ezaugarriak jorratuko ditu. Ondo-

ren, album horiek sor ditzaketen aurreiritziak identifikatu, eta gero, haien bertuteak azalduko dizkigu Ayerbek.

Gure eskerrak honako ilustratzaile hauei beren lana uzteagatik *Behinola* honetan ager dadin: AITZIBER ALONSO, LUIS ALONSO, ASISKO, IBAN BARRENETXEA, ANTON DUESO, ÁNGEL DOMÍNGUEZ, EIDER EIBAR, BELÉN LUCAS, JESÚS LUCAS, DANI MAIZ, IÑAKI MARTIARENA «MATTIN», LORENA MARTÍNEZ, JOKIN MITXELENA, ENRIQUE MORENTE, ELENA ODRIUZOLA, IRAIA OKINA, MANU ORTEGA, PEDRO OSÉS, JOSE ANTONIO TELLAETXE, MIKEL VALVERDE, AGURTZANE VILLATE, JON ZABAETA.

Bukatzeko, gure eskerrik beroena **DANI MAIZ** ilustratzaileari egin duen azalagatik eta ale honetan egindako lanagatik.